## Korrituak eta finantzaketa gastuak

Jarri (72) (77) (82) eta (87) laukietan aipatutako gastuak.

## Amortizazioa

Jarri (73) (78) (83) eta (88) laukietan amortizatze erabiltzen diren diru kopuruak, baina higiezinaren kasuan diru kopuru horiek ezingo dira erosketa kostuari - lurraren balioa sartu gabe - % 3 aplikatzearen emaitza baino handiagoak izan.

## Bestelako gastuak

Sarrerak eskuratzeko behar diren guztiak (Estatukoak ez diren tributoak eta errekarria, kontserbazioa eta konpontzea, eta abar), (74) (79) (84) (89) laukiak).

## Hobaria

Jarri (123) (124) (125) (126) laukietan etekin osoaren %40, 1985eko maiatzaren 9a baino lehen egindako kontratuen bitartez alokatutako higiezinaren kasuan, baldin eta higiezin horiek errenta berrikusteko eskubiderik ez badute Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1997 Legearen indarrez.

## Higiezinaren etekin garbia

Zutabe bakoitzean alokairuaren zenbatekoaren eta gastu kengarrien arteko aldea adierazi behar da. Kontuan eduki gastu kengarrien baturak ezin dezakeela, higiezin bakoitzerako, etekin garbi negatiborik sortu (75) (80) (85) eta (90) laukiak.

## Etekin garbia guztira

Eraman (91) laukira (75), (80), (85) eta (90) laukietako zenbatekoen batura.

## Ondasun higiezinaren gaineko eskubide errealean eraketa edo lagapena

## Jasotako kopurua (etekin garbia)

Adierazi (105) (106) (107) (108) laukietan ondasun higiezinaren gaineko eskubide errealek eratu edo lagatzeagatik benetan kobratutako zenbatekoak eta eraman guztien batukaria (109) laukira.

## 4.- KAPITAL HIGIKORRAREN ETEKINAK

## Errenta egozketaren araubideko entitateetako partaidetza

Errenta egozketaren araubidean dagoen eta ekonomia jarduera egiten duen entitate bateko bazkide kapitalista izateagatik jasotako zenbatekoa jarri behar da (144) laukian.

(146) laukian entitatearen IFZ jarri behar da, eta (147) an, ekarritako kapitala.

## Kapital higikorren bestelako etekinak

Jabetza intelektualetik, laguntza teknikoak ematek, ekonomia jardueri loturik ez dauden ondasun higikor, negozio edo meategien alokairutik edo irudira ustiatzeko eskubidearen lagapenetik etorritako etekinen zenbateko osoa jarri behar da (139) laukian.

Halaber, zergadunarekin lotura duten entitateetatik etorritako kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako etekinak sartuko dira, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## Etekin osoa guztira

Jarri (140) laukian (144) eta (139) laukiak batzearen emaitza.

## Gastu kengarriak

(139) laukian sartutako sarrerak lortzeko beharrezko gastuak (143) laukian egotziko dira.

## Etekin garbia

Jarri (145) laukian honako emaitza hau: etekin osoei (140) laukia) gastu kengari guztiak (143) laukia).

## 5.- ERRENTA EGOZKETA

Atal honetan, gardentasun fiskalean dauden sozietateetako (IEE eta ABEE) egotzi beharreko zerga oinarriak eta nazioarteko gardentasun fiskaleko araubidean dauden sozietateetatik lortutako errenta positiboak jasoko dira, baita ere paradisu fiskaletan eratutako inbertsio kolektiboko erakundeetatik egotzeko diren errenta positiboak.

Identifikatu bazkidea dagokion laukietan, honako hau jarrita: «A» (aitorlea), «E» (ezkontidea edo izatezko bikoteko kidea), «S1» (seme-alaba), eta abar, kasuan kasukoa.

Eraman egotzeko diren kopuru osoak (157) (171) eta (178) laukietara.

IFZ	DEITURAK ETA IZENA	PFEZ 2013 3. ORRIALDEA
-----	--------------------	---------------------------

<b>6</b>	<b>ZERGA OINARRI OROKORREKO IRABAZIAK/GALERAK (Ikusi C-4 eranskina)</b>	
	Zerga oinarri orokorreko ondare irabazien eta galeren saldo positiboa C-4 eranskineko 795 laukia	179
	2009-2012 ekitaldietako zerga oinarri orokorreko ondare galeren konpentsazioa C-4 eranskineko 949 laukia	180
	<b>ZERGA OINARRI OROKORREKO ONDARE IRABAZI KARGAPETUA ( [179]-[180] )</b>	241

<b>7</b>	<b>ZERGA OINARRI OROKORREKO ERRENTAK</b>	242
----------	--	-----

<b>8</b>	<b>2009 ETA 2013. URTE BITARTEKO ZERGA OINARRI OROKORREKO GALERAK 2013KO ZOO-KO ERRENTEKIN KONPENTSATZEA</b>	
	2009, 2010, 2011 eta 2012ko zerga oinarri orokorreko galerak C-4 eranskineko [931] + [935] + [940] + [945] laukia	243
	Zerga oinarri orokorreko errentekin konpentsatzen dena C-4 eranskineko [952] laukia	244
	2013ko Zerga oinarri orokorreko ondare irabazien eta galeren saldo negatiboa C-4 eranskineko [797] laukia	215
	Ekitaldi honetako konpentsazioa	181
	Kompentsatzeke dauden 2013ko ZOO-ko galerak ( [215]-[181] )	182

<b>9</b>	<b>ZERGA OINARRI OROKORRA ( [242]-[244]-[181] )</b>	251
----------	---	-----

<b>10</b>	<b>MURRIZKETAK</b>	
	<b>KONPENTSAZIO PENTISIOAK ETA URTEKO MANTENU SARIAK</b>	
	Zergaduna	260
	IFZ	1. Deitura
	Hartzailea	254
	Konp. pentisio edo mantenuaren zenbatekoa	256
		261
	Zergaduna	262
	IFZ	1. Deitura
	Hartzailea	255
	Konp. pentisio edo mantenuaren zenbatekoa	257
		263
	Kompentsazio pentisioengatik murrizketa	266
	<b>GIZARTE AURREIKUSPENEN SISTEMAK ETA MENPEKOTASUN ASEGURUA (E eranskina)</b>	
	Gizarte aurreikuspeneko sistematarako enpresa ekarpenak	289
	Zergadunaren beraren aldeko gizarte aurreikuspeneko sistematarako ekarpen pertsonalak	290
	Ezkontidearen aldeko gizarte aurreikuspeneko sistematarako ekarpen pertsonalak	305
	Zergadun ezinduak gizarte aurreikuspeneko sistematarako egindako ekarpenak	295
	Beste ezindu batzuen aldeko gizarte aurreikuspeneko sistematarako ekarpenak	268
	Beste pertsona batzuen aldeko menpekotasun aseguruatarako ekarpenak	270
	<b>BATERAKO TRIBUTAZIOKO MURRIZKETA</b>	314
	<b>MURRIZKETAK GUZTIRA ( [266] + [289] + [290] + [305] + [295] + [268] + [270] + [314] )</b>	315

<b>11</b>	<b>LIKIDAZIO OINARRI OROKORRA ( [251] - [315] )</b>	341
-----------	---	-----

<b>12</b>	<b>2009-2012 ekitaldietako LIKIDAZIO OINARRI OROKOR NEGATIBOEN KONPENTSAZIOA</b>	
	Zein ekitaldietakoak diren	367
	Kompentsatzeak	368
	Ekitaldi honetako konpentsazioa	369
	Kompentsatugabea	374
	<b>KONPENTSATZEKO GUZTIRA ( [369] + [373] + [379] + [388] )</b>	375

<b>13</b>	<b>JUSTIFIKATU GABEKO ONDARE IRABAZIEN INTEGRAZIOA</b>	376
-----------	--	-----

<b>14</b>	<b>LIKIDAZIO OINARRI OROKOR KARGAPETUA ( [341] - [375] + [376] )</b>	381
	Likidazio oinarri orokor negatiboa (hala badagokio)	382

**6.- ZERGA OINARRI OROKORREKO ONDARE IRABAZIAK/GALERAK**

Atal hau bete aurretik, C-4 eranskinean adierazitako datuak hartu behar dira kontuan, eta zerga oinarri orokorreko ondare irabazi eta galeren saldo positiboa, eranskin horretako **795** laukian agertzen dena, **179** laukian jarri.

**2009 eta 2012 bitarteko ekitaldietako zerga oinarri orokorreko ondare galeren konpentsazioa**

Atal hau bete aurretik, C-4 eranskinean adierazitako datuak hartu behar dira kontuan, eta zerga oinarri orokorreko ondare irabazien eta galeren arteko saldo positiboa, eranskin horretako **949** laukian agertzen dena, **180** laukian jarri.

**Zerga oinarri orokorreko ondare irabazi kargapetua (241) laukia)**

Zerga oinarri orokorreko ondare irabazien eta galeren saldo positiboaren (**179**) laukia) eta 2009 eta 2012 bitarteko ekitaldietako zerga oinarri orokorreko ondare galeren konpentsazioaren (**180**) laukia) arteko diferentzia izango da.

**7.- ZERGA OINARRI OROKORREKO ERRENTAK, GUZTIRA**

Zerga oinarri orokorreko errenten guztizko kopurua (**242**) laukia) honako hauen saldoak osatzen du: etekin garbiak **51** + **69** + **91** + **109** + **145**, errenta egozketak **157** + **171** + **178** eta zerga oinarri orokorreko ondare irabazi kargapetua (**241**) laukia).

**8.- 2009. ETA 2013. URTE BITARTEKO ZERGA OINARRI OROKORREKO GALERAK 2013KO ZERGA OINARRI OROKORREKO ERRENTEKIN KONPENSATZEA**

Atal hau bete aurretik, C-4 eranskinean adierazitako datuak hartu behar dira kontuan, eta ondoko laukietara zenbateko hauek eraman:

**243** laukira, 2009, 2010, 2011 eta 2012ko zerga oinarri orokorreko ondare galeren saldoa, aipatutako eranskineko **931** + **935** + **940** + **945** laukien batuketara ageri dena.

**244** laukira, 2013ko ZOOko errentekin konpentsatzen den 2009, 2010, 2011 eta 2012ko ZOOko galeren zenbatekoa, aipatutako eranskineko **952** laukian ageri dena.

**215** laukira, 2013ko zerga oinarri orokorreko ondare irabazien eta galeren saldo negatiboa, aipatutako eranskineko **797** laukian ageri dena.

Jarri **181** laukian ekitaldi honetan 2013ko ZOOko errentekin konpentsatzen den 2013ko ZOOko galeren zenbatekoa, eta **182** laukian, konpentsatze dagoen 2012ko ZOOko galeraren zenbatekoa.

**9.- ZERGA OINARRI OROKORRA**

Zerga oinarri orokorra (**251**) laukia) honako kenketa honen emaitza da: zerga oinarri orokorreko errenta guztiak (**242**) laukia) ken 2009, 2010, 2011 eta 2012ko zerga oinarri orokorreko ondare galeren zenbateko konpentsatua (**244**) ken 2013ko zerga oinarri orokorreko ondare galeren zenbateko konpentsatua (**181**) laukia).

**10.-MURRIZKETAK****Konpentsazio pentsioak eta urteko mantenu sariak.**

Jarri pentsio horien ordaintzailea "A" "E", **260** **262** laukietan; hartzailearen datuak (IFZ, izena eta deiturak) **254** **256** **255** **257** laukietan, eta ordaindutako konpentsazio pentsioaren zenbatekoa **261** **263** laukietan..

Eraman **266** laukira (konpentsazio pentsioengatiko eta urteko mantenu sariengatiko murrizketa) kopuru horien guztizkoa.

**Gizarte aurreikuspeneko sistemak eta menpekotasun aseguruak (E eranskina).**

Atal hau bete aurretik, E eranskinean adierazitako datuak hartu behar dira kontuan, eta eranskin horretako laukietatik ateratzen diren zenbatekoak **289** **290** **305** **295** **268** **270** laukietan jarri.

**Baterako tributazioko murrizketa**

Jarri **314** laukian dagokion murrizketa (4.176 € orokorrean, eta 3.628 € urtarilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren 100.2 artikuluan jasotzen diren zenbateko kasuan).

**MURRIZKETAK GUZTIRA**

Jarri **315** laukian **266** **289** **290** **305** **295** **268** **270** **314** laukien batuketara.

**11.- LIKIDAZIO OINARRI OROKORRA**

Jarri **341** laukian **251** laukiaren (zerga oinarri orokorra) eta **315** laukiaren (murrizketak guztira) arteko aldea.

**12.- LIKIDAZIO OINARRI OROKOR NEGATIBOEN KONPENSATZEA. 2009-2012 EKITALDIAK.**

Jarri **368** **372** **378** eta **387** laukietan konpentsatu beharreko kopuruak, dagozkien ekitaldiaren arabera, eta banatu urte bakoitzeko kopurua ekitaldi honetan konpentsatzen diren kopuruak (**369** **373** **379** **388** laukiak) eta konpentsatu gabe gelditzen diren (**374** **380** **389** laukiak) artean; horrela, **375** laukian (konpentsatzeko guztira), **369**, **373**, **379** eta **388** laukien batura agertu behar da.

**13.-JUSTIFIKATU GABEKO ONDARE IRABAZIEN INTEGRAZIOA**

Jarri **376** laukian justifikatu gabeko ondare irabaziak..

**14.- LIKIDAZIO OINARRI OROKOR KARGAPETUA**

Hauxe izango da **381** laukiko zenbatekoa: likidazio oinarri orokorrari (**341**) laukia) likidazio oinarri negatiboengatiko konpentsazioak (**375**) laukia) kentzearen eta justifikatu gabeko ondare irabazien integrazioaren zenbatekoa (**376**) laukia) gehitzearen emaitza.

Emaitza hori negatiboa bada, jarri **382** laukian, likidazio oinarri negatibo moduan.

IFZ	DEITURAK ETA IZENA	IPFEZ 2013 4. ORRIALDEA
-----	--------------------	----------------------------

### AURREZPENAREN LIKIDAZIO OINARRIAREN KALKULUA

<b>15</b>	<b>KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK</b>	
<b>ETXEBIZITZEN ERRENTAMENDUA</b>		
Errentamenduaren zenbatekoa (+)	183	187
Korrituak eta finantzaketa gastuak (-)	184	188
35. artikuluko hobaria (-)	185	189
2. X. I.eko hobaria (-)	186	190
Higiezinaren etekin garbia	216	217
<b>Etekin garbia guztira</b>		<b>199</b>

<b>16</b>	<b>KAPITAL HIGIKORRAREN ETEKINAK</b>	
Funts propioetako partaidetza		
Zenbateko osoa	120	Zenbateko salbuetsia
K/k, obligazioen etab. korrituak		Integratzekoa guztira
Hobaritutako obligazioen korrituak		135
Kapitalizazio eragiketak eta aseguru kontratuak		136
16. X.I. aplik. zaien kap. eragiketak eta aseguru kontratuak	Etek 35/1998 FA	8216
Atxikipenik gabeko etekinak		Integratzeko etek.
<b>Etekin garbia ( [204] + [135] + [136] + [137] + [8217] + [138] )</b>		<b>138</b>
		<b>205</b>

<b>17</b>	<b>AURREZPENAREN ZERGA OINARRIKO ETEKINAK GUZTIRA</b>	213
Aurrezpenaren zerga oinarriko etekin negatiboak guztira		214

<b>18</b>	<b>AURREZPENAREN ZERGA OINARRIKO 2009, 2010, 2011 ETA 2012KO ETEKIN NEGATIBOEN KONPENSATZIOA</b>	
Zein ekitalditakoak diren	222	2009
Konpentsatzekoa	223	228
Ekitaldi honetako konpentsazioa	224	229
Konpentsatzeko dagoena		230
<b>KONPENSATU BEHARREKOA, GUZTIRA ( [224] + [229] + [233] + [237] )</b>		<b>226</b>

<b>19</b>	<b>AURREZPENAREN ZERGA OINARRIKO ONDARE IRABAZIAK/GALERAK (Ikusi C-4 eranskina)</b>	
Aurrezpenaren zerga oinarriko irabazien eta galeren saldo positiboa		C-4 eranskineko 796 laukia
2009-2012 ekitaldietako aurrezpenaren z.o.ko ondare galeren konpentsazioa		C-4 eranskineko 985 laukia
<b>AURREZPENAREN ZERGA OINARRIKO ONDARE IRABAZI KARGAPETUA ( [206] - [208] )</b>		<b>209</b>

<b>20</b>	<b>AURREZPENAREN ZERGA OINARRIKO ERRENTAK GUZTIRA</b>	210
Kerkaria konpentsazio pentsio eta urteko mantenu sariengatik		211
<b>AURREZPENAREN LIKIDAZIO OINARRI KARGAPETUA ( [210] - [211] )</b>		<b>212</b>

<b>21</b>	<b>KUOTA OROKOR OSOAREN KALKULUA</b>	
Likidazio oinarri orokor kargapetua		381
BATEZ BESTEKO TASA = $\frac{423}{381} \times 100 =$		424
Honetaraino .....		421
424 % Gainerakoa .....		422
<b>KUOTA OROKOR OSOA ( [421] + [422] )</b>		<b>423</b>
JARDUERETAKO ONDARE IRABAZIEN DOIKUNTZA		
ONDARE IRABAZIA	431	( 424- SZ tasa/100)
<b>BENETAKO KUOTA OROKOR OSOA ( [423] - [433] )</b>		<b>434</b>

<b>22</b>	<b>AURREZPENAREN KUOTA OSOAREN KALKULUA</b>	
Aurrezpenaren likidazio oinarri kargapetu		212
<b>AURREZPENAREN KUOTA OSOA (atzealdean begiratu)</b>		<b>435</b>

<b>23</b>	<b>KUOTA OSOA GUZTIRA ( [434] + 435 )</b>	441
-----------	---	-----

4. ORRIALDEA - PFEZ 2013

**AURREZPENAREN LIKIDAZIO OINARRIAREN KALKULUA****15.- KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK****Etxebizitzaren errentamendua**

Atal honetan sartzen dira Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen arabera etxebizitzat hartzen diren ondasun higiezin errentamendutik sortutako etekinak.

**Alokairuaren zenbatekoa**

Jarri [183](#) [187](#) [191](#) [195](#) laukietan errentariarengandik edozein kontzeptutan kobratutako zenbatekoa, hala badagokio, higiezinarekin batera lagatuko ondasun guztiei dagokiena, BEZ barne hartu gabe.

**Korrituak eta finantzaketa gastuak**

Jarri [184](#) [188](#) [192](#) [196](#) laukietan erosketa, birgaikuntza edo hobekuntzan inbertitutako besteren kapitalen korrituak eta gainerako finantzaketa gastuak.

**3/2007 Faren 35. artikuluko hobia:**

Jarri [185](#) [189](#) [193](#) [197](#) laukietan ondasun higiezin bakoitzaren etekin osoaren %20.

Etxebizitzaren alokairutik datozen kapital higiezinaren etekinak lehenengo aldiz aitortzen baldin badira, higiezin bakoitzetik lortutako etekin osoen %25eko hobia aplikatu da, behin bakarrik.

**3/2007 Faren 2. X.I.eko hobia:**

Jarri [186](#) [190](#) [194](#) [198](#) laukietan higiezin bakoitzetik lortutako etekin osoaren %50, 1985eko maiatzaren 9a baino lehen egindako kontratuen bitartez alokatutako higiezinaren kasuan, baldin eta higiezin horiek errenta berrikusteko eskubiderik ez badute Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1997 Legearen indarrez.

**Higiezinaren etekin garbia**

[216](#) [217](#) [218](#) [219](#) laukiak.

Zutabe bakoitzean, jarri alokairuaren zenbatekoaren eta gastu kengarrien arteko diferentzia, kontuan hartuz gastu kengarrien baturak ezin dezakeela, higiezin bakoitzerako, etekin garbi negatiborik sortu.

**Etekin garbia guztira**

Eraman [199](#) laukira [216](#) [217](#) [218](#) [219](#) laukien batura.

**16.-KAPITAL HIGIKORRAREN ETEKINAK****Funts propioetako partaidetza****Zenbateko osoa**

Jarri [120](#) laukian jasotako zenbateko osoa.

**Zenbateko salbuetsia**

Jarri zenbateko salbuetsia [201](#) laukian.

**Integratzekoa guztira**

Jarri [204](#) laukian zenbateko osoaren eta zenbateko salbuetsiaren arteko diferentzia.

**X.I. aplikatzekoa zaien kap. eragiketak eta aseguru kontratuak**

Jarri [8216](#) laukian 16. Xedapen Iragankorra aplikatzekoa zaien kapital geroratzeko hartukizunetatik sortutako etekinen guztizko kopurua integratu eta beren artean konpentsatzearen emaitza. 2006an indarrean zegoen PFEZren 35/98 Foru Arauan aurreikusitako integrazio ehunekoak aplikatu ahal izango dituzte.

Jarri [8217](#) laukian aurrezpenaren zerga oinarrian integratzeko den etekina, 3/2007 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

**Etekin garbia**

[204](#) [135](#) [136](#) [137](#) [8217](#) [138](#) laukietako kopuruak batzearen emaitza [205](#) laukian jarri behar da.

**17.-AURREZPENAREN ZERGA OINARRIKO ETEKINAK GUZTIRA**

Jarri [213](#) laukian [199](#) [205](#) laukietako kopuruaren baturaren saldo positiboa. Emaitza hori negatiboa bada, [214](#) laukian jarri behar da.

**18.- 2009, 2010, 2011 ETA 2012KO EKITALDIETAKO AURREZPENAREN ZERGA OINARRIKO ETEKIN NEGATIBOEN KONPENSATZIOA**

Jarri [223](#) [228](#) [232](#) eta [236](#) laukietan konpentsatzeke dagoen 2009, 2010, 2011 eta 2012ko aurrezpenaren zerga oinarriko etekin negatiboa, hurrenez hurren; [224](#) [229](#) [233](#) eta [237](#) laukietan, ekitaldi honetan konpentsatzen den zenbatekoa, eta [225](#) [230](#) [234](#) eta [238](#) laukietan, konpentsatzeke geratzen den zenbatekoa; horrela, KONPENSATZEKO GUZTIRA ( [226](#) laukia ) [224](#) [229](#) [233](#) eta [237](#) laukien baturarekin bat etorri behar da.

**19.- AURREZPENAREN ZERGA OINARRIKO ONDARE IRABAZIAK/GALERAK**

Atal hau bete aurretik, C-4 eranskinean adierazitako datuak hartu behar dira kontuan, eta aurrezpenaren zerga oinarriko ondare irabazien eta galeren arteko saldo positiboa, eranskin horretako [796](#) laukian agertzen dena, [206](#) laukian jarri.

**2009-2012 ekitaldietako aurrezpenaren zerga oinarriko ondare galeren konpentsazioa.**

Atal hau bete aurretik, C-4 eranskinean adierazitako datuak hartu behar dira kontuan, eta aurrezpenaren zerga oinarriko ondare irabazien eta galeren arteko saldo positiboa, eranskin horretako [985](#) laukian ageri dena, [208](#) laukira eramán.

**Aurrezkiaren zerga oinarriko ondare irabazi kargapetua ( [209](#) laukia )**

Aurrezkiaren zerga oinarriko ondare irabazi eta galeren saldo positiboari ( [206](#) laukia ) 2009-2012 ekitaldietako aurrezkiaren zerga oinarriko ondare galeren konpentsazioa kenduta lortuko da ( [208](#) laukia ).

**20.- AURREZPENAREN ZERGA OINARRIKO ERRENTAK GUZTIRA**

Aurrezpenaren zerga oinarriko errenten guztizko zenbatekoa ( [210](#) laukia ) honako hauen saldoak osatzen du: aurrezpenaren oinarriko etekinak ( [213](#) laukia ) ken 2009, 2010, 2011 eta 2012ko ekitaldietako aurrezpenaren zerga oinarriko etekin negatiboen konpentsazioa ( [226](#) laukia ), gehi aurrezpenaren zerga oinarriko ondare irabazi kargapetua ( [209](#) laukia ).

**21.- KUOTA OROKOR OSOAREN KALKULUA**

Behin likidazio oinarri orokor kargapetua ( [381](#) laukia ) zehaztu ondoren, zergaren eskala aplikatu lortuko da kuota orokor osoa, eta horretarako [421](#) eta [422](#) laukiak beteaz eta [423](#) laukian guztiak gehituz.

**ZERGAREN ESKALA**

Lik. oinarri orokorra kop. honetaraino	Kuota osoa	Gainerako lik. oinarria kop. honetaraino	Aplikatzeko tasa
€	€	€	%
0	0	15.390	23,00
15.390	3.539,70	15.390	28,00
30.780	7.848,90	15.390	35,00
46.170	13.235,40	19.790	40,00
65.960	21.151,40	Hortik gora	45,00

**JARDUERARI LOTUTAKO ONDARE ELEMENTUEN ONDORIOZKO IRABAZIEN DOIKUNTZA**

Zergadunaren karga orokorraren batez besteko tasa ( [424](#) laukia ) Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorra (%32,5 edo %30) baino handiagoa denean, kuota osoa murriztu egingo da aipatutako batez besteko tasa eta Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorraren arteko diferentzia ( [432](#) laukia ) ekonomia jardueren etekin positibo garbia osatzen duten ondare irabazien zenbatekoari ( [431](#) laukia ) aplikatzearen ondoriozko emaitzaraino.

Emaitza hori [433](#) laukian adierazi behar da.

**BENETAKO KUOTA OROKOR OSOA**

Benetako kuota orokor osoa [423](#) laukiko (kuota orokor osoa) eta [433](#) laukiko (ondare elementuetatik sortutako irabazien doikuntza) zenbatekoen arteko diferentziatik aterako da eta [434](#) laukian jarri behar da.

**22.- AURREZPENAREN KUOTA OSOAREN KALKULUA.**

Behin finkatuta kargatutako aurrezkiaren likidazio oinarria (212 laukia), aurrezkiaren kuota osoa lortzeko, zergaren eskala aplikatu behar da, eta ateratzen den zenbatekoa [435](#) laukian jarri.

**ZERGAREN ESKALA.**

Aurrezkiaren Likidazio Oinarria	Tasa
€	%
10.000 arte	20
10.000,01etik gora	22

**23.- KUOTA OSOA GUZTIRA**

Jarri [441](#) laukian [434](#) eta [435](#) laukien batura.

IFZ	DEITURAK ETA IZENA	PFEZ 2013 5. ORRIALDEA	
<b>24</b>	<b>KENKARIAK</b>		
	<b>KENKARI OROKORRA</b>	450	
	<b>FAMILIARENAK ETA PERTSONALAK</b>		
	Ondorengo ahaideengatik	451	
	Seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik		
	Urteko mantenua jasotzen dutenen kopurua		
	Ordaindutako urteko mantenuen zenbatekoa		
	Kenkariaren zenbatekoa	452	
	Aurreko ahaideengatik	453	
	Ezintasun edo mendekotasunagatik	454	
	Adinagatik	479	
	<b>OHIKO ETXEBIZITZA</b>		
	Ohiko etxebizitzaren alokairuagatik (D eranskineko [813] laukia)	458	
	Etxebizitza konturako ekarpenengatik (D eranskineko [819] laukia) Irekitze data [459] / /	460	
	Ohiko etxebizitzaren erosketa/birgaikuntzagatik: inbertsioa. D eranskineko [909] + [910] laukiak	461	
	Ohiko etxebizitzaren erosketa/birgaikuntzagatik: finantzaketa. D eranskineko [911] laukia	462	
	<b>EKONOMIA JARDUEREN SUSTAPENA</b>		
	Ekonomia jardueretako inbertsioengatik eta/edo enplegua sortzeagatik/LH gastuengatik (B-5 eranskineko [5158] eta/edo [5159])	463	
	Langileek enpresako partaidetzak eskuratzeagatik	464	
	Enpresa-konturako ekarpenengatik Irekitze data [487] / /	480	
	<b>DOHAINTZAK ETA MEZENASGO EKINTZAK</b>		
	Dohaintzengatik	465	
	Lehentasuneko mezenasgo ekintzengatik	506	
	<b>BESTELAKO KENKARIAK</b>		
	Nazioarteko zergapetze bikoitzarengatik	472	
	Sindikatu kuotengatik	488	
	Alderdi politikoentzako ekarpenengatik	482	
	IEEek eta ABEEek egotzitakoak	489	
	Nazioarteko gardentasun fiskaleko erregimenean dauden sozietateenak	475	
	Kapital higikorren atxikipen egozgarriengatik	476	
	Babestutako ondarrera egindako ekarpenengatik	455	
	16. X.I. zerga konpentsazioa	492	
	<b>KENKARIAK GUZTIRA ([450]etik [492]ra arteko batura + [506])</b>		481
<b>25</b>	<b>KUOTA LIKIDOA ([441] - [481])</b>		491
	Aurreko urteetako onurak galtzeagatik gehikuntza	495	
	Berandutze korrituak	507	
	<b>EMAITZA ([491]+ [495]+ [507])</b>		501
<b>26</b>	<b>KONTURAKO ORDAINKETAK</b>		
	Lanaren etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak	511	
	Lanbide jardueretako etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak	512	
	Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza jardueretako etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak	513	
	Enpresa jardueretako etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak	510	
	Zatikako ordainketak	514	
	Ondasun higiezin errentamendutik sortutako etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak	515	
	Kapital higikorren etekinen benetako atxikipenak eta konturako sarrerak	516	
	Inbertsio funtsetatik lortutako ondare irabazien konturako atxikipenak	517	
	Sarien atxikipenak eta konturako sarrerak	518	
	IEEK eta ABEEek egotzitako atxikipenak, konturako sarrerak eta Sozietateen gaineko Zergako kuota egotzia	519	
	<b>KONTURAKO ORDAINKETAK GUZTIRA ([511]tik [519]ra arteko batura)</b>		520
<b>27</b>	<b>ATXIKIPENEN BIDEZKO ZERGA-AUKERA</b>		
	Atxikipenen zerga aukeraren doikuntza (A eranskineko [590] laukia)		525
<b>28</b>	<b>KUOTA DIFERENTZIALA ([501]- [520]- [525])</b>		531
<b>29</b>	<b>AITORPENAREN EMAITZA</b>		
	Zergadunak sartutako zenbatekoa	541	
	AFAk itzulitako zenbatekoa	542	
	<b>EMAITZA ([531]- [541]+ [542])</b>		545

**24.- KENKARIAK****Kenkari orokorra (3/2007 Faren 80. artikulua)**

Jarri [450](#) laukian aitortpen bakoitzeko eta urteko 1.375 euroko kenkari orokorra.

**Ondorengo ahaideengatik (3/2007 Faren 81.1 eta 2. art.)**

Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko edo tutoretza edo erakunde publiko eskudunaren aurrean formalizatutako harreraz zergadunarekin loturik dagoen pertsona bakoitzeko, honako kenkari hau egingo da:

- 579 € urtean, lehenengoarengatik.
- 716 € urtean, bigarrenarengatik.
- 1.210 € urtean, hirugarrenarengatik.
- 1.430 € urtean, laugarrenarengatik.
- 1.869 € urtean, bosgarrenarengatik eta hurrengo bakoitzarengatik.

Ondorengo sei urtetik beharokoa bada, aurreko kenkariak gain, urtean 331 euroko kenkari osagarria egingo da.

Ondorengo sei urte edo gehiagokoa bada, eta hamasei urtetik beharokoa, gainera, urtean 51 euroko kenkari osagarria aplikatuko da.

Jarri [451](#) laukian dagokion kenkariaren zenbatekoa.

Ondorengo ahaidea maila bereko aurreko ahaide bat baino gehiagorekin bizi baldin bada, kenkaria zati berdinetan banatuko dute eta hala egingo dute.

**Seme-alaben mantenua ordaintzeagatik (3/2007 Faren 82. art.)**

Zenbatekoa epailearen erabakiz ordaintzeko diru kopuruen %15 izango da, betiere honako muga gainditu gabe, seme-alaba bakoitzarentzat: seme-alaba bakoitzarentzat ondorengo ahaideen kenkariak dagokion zenbatekoaren %30.

Adierazi dagokion laukian hartzaile kopurua eta urtean ordaintutako zenbatekoa. Jarri [452](#) laukian kontzeptu honengatik kenkaria.

**Aurreko ahaideengatik (3/2007 Faren 83.1 art.)**

Zergadunarekin urte guztian zehar etengabe bizi den aurreko ahaide bakoitzarengatik, 277 euroko kenkaria egingo da.

Jarri [453](#) laukian dagokion kenkaria.

Aurreko ahaidea maila bereko ondorengo ahaide bat baino gehiagorekin bizi baldin bada, kenkaria zati berdinetan banatuko dute eta hala egingo dute.

Gradu ezberdineko ondorengoekin bizi bada, gradu hurbileneokoa bakarrik dute kenkaria aplikatzeko eskubidea. Ondorengo batek ere ez badu lanbidearteko gutxienezko soldata baino gehiagoko urteko errentarik izan zergaldian –errenta salbetsuak kontuan hartu gabe–, kenkaria gradu urrunagokoetara pasako da (2013ko LGS, urtean 9.034,20 euro).

Aurreko ahaidea foru sarearen barruan ez dagoen egoitza zentro batean bizi bada, kenkaria zentro horretako egonaldiaren gastuak ordaintzen dituztela faktura bidez egiaztatzen duten maila hurbileneko ondorengo ahaideen artean banatuko da eta hala egingo da.

**Ezintasun edo mendekotasunagatik (3/2007 Faren 84. art.)**

Zergadun ezinduko edo mendeko bakoitzeko, jarraian zehazten den kenkaria egingo da, ezintasun edo mendekotasun mailaren eta beste pertsona baten laguntzaren beharren arabera.

Ezintasun edo mendekotasun maila eta beste pertsona baten laguntzaren maila	Kenkaria
%33 edo gehiago eta %65 baino gutxiago	771 €
Ezintasuna %65 edo gehiago edo mendekotasun arina (I maila)	1.101 €
Ezintasuna %75 edo gehiago, 15 eta 39 puntu bitartean beste baten laguntzagatik edo mendekotasun larria (II maila)	1.320 €
Ezintasuna %75 edo gehiago, 40 puntu edo gehiago beste baten laguntzagatik edo mendekotasun handia (III maila)	1.649 €

Kenkari berdina egin daiteke aurreko edo ondorengo ahaide, ezkontide edo izateko bikoteko kide edo laugarren mailara arteko albo-ahaide bakoitzarengatik, edozein adinetakoa ere delarik, ondoko baldintza hauek betetzen baditu: ezindua edo mendekoa izatea; zergadunaren kontura bizi izatea eta zergaldirako ezarritako lanbide arteko gutxienezko soldataren bikoitza baino gehiagoko errentarik ez izatea, errenta salbetsuak kontuan hartu gabe. Halaber, kenkari hori egingo da ezintasuna edo mendekotasuna duen pertsona, tutoretza edo erakunde publiko eskudunaren aurrean formalizatutako hamara dela eta, zergadunarekin loturik baldin badago

- Aurreko ataleko ahaideen zerrendan sartzen ez den 65 urte edo gehiagoko pertsona bakoitzarengatik, zergadunarekin bizi bada, aurreko kenkaria aplikatuko da, haren ezintasun edo mendekotasun mailaren eta beste pertsona baten laguntza beharren arabera.

Kenkari hau egin ahal izateko, ezindua edo mendekoa errentak, salbetsuak kontuan hartu gabe, lanbide arteko gutxienezko soldataren bikoitza baino txikiagoak izan behar dira.

Jarri dagokion kenkaria [454](#) laukian.

**Aidinagatik (3/2007 Faren 85. art.)**

330 euroko kenkaria egingo da 65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko, baldin eta haren zerga oinarria 30.000 eurokoa edo hortik beharokoa bada.

Zerga oinarria 30.000 eurotik gorakoa eta 35.000 eurotik beharokoa bada, 330 euroko kenkaria aplikatu da, ondoko eragiketaren emaitza kenduta: zerga oinarriari 30.000 euro kendu eta emaitza 0,066ez biderkatu.

605 euroko kenkaria egingo da 75 urtetik gorako zergadun bakoitzeko, baldin eta haren zerga oinarria 30.000 eurokoa edo hortik beharokoa bada.

Zerga oinarria 30.000 eurotik gorakoa eta 35.000 eurotik beharokoa bada, 605 euroko kenkaria aplikatu da, ondoko eragiketaren emaitza kenduta: zerga oinarriari 30.000 euro kendu eta emaitza 0,121ez biderkatu.

Kenkari hau aplikatzeko ezinbestekoa da baterako zerga ordaintzaren oinarria 40.000 eurokoa edo hortik beharokoa izatea.

Zerga oinarritzat hartuko da [251](#) eta [210](#) laukien batura. [251](#) laukiak saldo negatiboa bada, kenkari hori kalkulatzeko, zero kontatuko da.

Jarri [479](#) laukian kenkariaren zenbatekoa.

**Ohiko etxebizitzagatik**

Bete D eranskina eta eraman bertan adierazitako zenbatekoak [458](#) [459](#) [460](#) [461](#) [462](#) laukietara.

**Inbertsioak eta enplegua sortzea/LHko gastuak ekonomia jardueretan**

Jarri [463](#) laukian B-5 eranskineko [5159](#) eta/edo [5159](#) laukietan azaltzen diren zenbatekoak.

**Langileek enpresako partaidetza eskuratzegatik (3/2007 Faren 91. art.)**

Jarri [464](#) laukian langileak lan egiten duen entitateko edo sozietateko edozein entitatetako akzioak edo partaidetza erosteko edo harpidetza erotzeko dirutan ordaindutako kopuruen % 10, betiere urtean 1.800 euroko gehienezko muga errespetatuz.

**Enpresa-konturako ekarpenengatik (3/2007 Faren 92. art.)**

Irekitze datatik hiru urte(\*) igaro baino lehenago, jarduera batean hasteko beharrezko gastu eta inbertsioak egitera bideratzen diren kontuetan zergaldian sartutako kopuruen %10 izango da kenkariaren zenbatekoa. Kenkariaren gehienezko muga urtean 2.000 euro da.

Zergaduna emakumea edo 30 urtetik beharokoa bada, kenkaria %15 izango da, eta urteko muga 3.000 euro izango da.

Jarri [487](#) laukian irekizte data eta [480](#) laukian dagokion kenkaria.

**Dohaintzengatik (3/2007 Faren 93. art.)**

Jarri [465](#) laukian irabazteko xederik gabeko elkarte eta fundazioei dohaintzaz emandako diru kopuruen % 30; entitate horiek mezenasgoaren onuradun bezala aitortuta egon behar dira Irabazteko xederik gabeko erakunde zerga erregimenari eta mezenasgoaren zerga pizgarri buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 18. artikuluan. Jarri baita irabazteko asmorik gabeko erakunde zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarri buruzko foru arautan araututa ez dauden irabazteko xederik gabeko erakundeek dohaintzaz emandako kopuruak ere, beti ere Eusko Jaurilaritzaren erregistroan inskribatuta badaude eta Arabako Foru Aldundiari jakinarazi badiote.

Legez aitorturiko fundazioak eta onura publikokotzat deklaraturako elkarteak badira baina aurretik adierazitakoan artean ez badaude, kenkaria % 10 izango da.

Mezenasgo ekintzengatik kenkariaren oinarria ezin daiteke izan zerga honetako likidazio oinarriaren %30 baino handiagoa.

**Lehentasuneko mezenasgo ekintzengatik**

Jarri [506](#) laukian lehentasuneko zerga joko ekintza edo programetarako emandako eta zure jarduerako gastu kengarri gisa egotzitako kopuruen % 18. Mezenasgo ekintzengatik kenkariaren oinarria ezin daiteke izan zerga honetako likidazio oinarriaren % 30 baino handiagoa.

**Nazioarteko zergapetze bikoitzagatik (3/2007 Faren 94. art.)**

Kenkari honen zenbatekoa [472](#) laukian adieraziko da.

**Sindikatu kuotengatik (3/2007 Faren 95. art.)**

Jarri [488](#) laukian langileen sindikatuei ordaindutako kopuruen %30.

**Alderdi politikoentzako ekarpenengatik (3/2007 Faren 95. art.)**

Jarri [482](#) laukian alderdi politikoetako afiliatu kuoten eta borondateko ekarpenen %30. IEEEK eta ABEEek egotzitako kenkariak

Jarri [489](#) laukian sozietate gardenek (IEE eta ABEEek) egotzitako kenkariak eta hobariak.

**Nazioarteko gardentasun fiskaleko erregimenean dauden sozietateen kenkaria**

(PFEZren 3/2007 Foru Arauaren 53. artikulua) Jar ezazu kenkari honen zenbatekoa [475](#) laukian.

**Kapital higikoraren atxikipen egogariengatik kenkaria**

Kengarria izango da egin beharreko atxikipenean (hobaritutako obligazioak) hobaria dagoenean kenkaria egiteko eskubidea ematen duen atxikipenean eta benetan egindako atxikipenearen arteko diferentzia. Zenbatekoa [476](#) laukian adierazi behar da.

**Ezindua ondatze babestura egindako ekarpenengatik (3/2007 Faren 87. art.)**

Jarri [455](#) laukian ezindua ondatze babestura egindako ekarpenen %30, aitortpen bakoitzean urteko 3.000 euroko muga dagoelarik.

Kenkari hau egin ahal izango du hirugarren mailara arteko (hori barne) ahaidetasun lokarria duen zergadunak, baita ere ezindua ezkontideak, izateko bikoteko kideak edo hura tutoretzan edo harreran daukanak.

**16. XI. zerga konpentsazioagatik kenkaria**

Jarri [492](#) laukian [8217](#) laukiaren %18ren eta honako kopuruaren arteko diferentzia positiboa: etekin horiek 35/98 Foru Arauan aurreikusitako ehunekoak aplikatuz likidazio oinarri orokorrean integratuta aterako zen kuota osoaren zenbateko teorikoa.

**KENKARIAK GUZTIRA**

[481](#) laukian [450](#) eta [492](#) bitarteko laukien gehi [506](#) laukiaren batura adierazi behar da.

**25.- KUOTA LIKIDOA**

Jarri [491](#) laukian [441](#) laukiaren (kuota osoa guztira) eta [481](#) laukiaren (murrizketak guztira) arteko aldea. Kuota likidua ezin daiteke inoiz negatiboa izan.

Emaitza ([501](#) laukia) honako batura honen emaitza izango da: kuota likidua ([491](#) laukia) eta aurreko urteetako inbertsiorako kenkari onurak galtzeagatik gehikuntza ([495](#) laukia), gehi Zergen Foru Arau Orokorraren 26. artikulua arabera aurreko kopuruari dagozkien berandutze korrituak ([507](#) laukia).

**26.- KONTURAKO ORDAINKETAK**

Jarri dagozkien laukietan kontura egindako atxikipenean eta sarrerak ([510](#) eta [519](#) bitarteko laukiak), eta eraman lortutako emaitza [520](#) laukira.

**27.- ATXIKIPENEN ZERGA AUKERAREN DOIKUNTZA**

Zergadunak atxikipenengatik zerga aukera hautatzen bada, jarri [525](#) laukian A eranskineko [590](#) laukiak zenbatekoa.

**28.- KUOTA DIFERENTZIALA**

Jarri [531](#) laukian [501](#) laukia ken [520](#) eta [525](#) laukiaren arteko aldea.

**29.- AITORPENAREN EMAITZA**


Atal hau beti bete behar da, kuota diferentzialaren zenbatekoa ([531](#) laukia) zeinahi dela ere.

Dena dela, honakoa izan behar da kontuan:

- Aurkeztutako aitortpena 2013 ekitaldiko aurreko beste baten osagarria bada, zergadunak sartutako kopurua ([541](#) laukia) eta/edo AFAk itzulitako kopurua ([542](#) laukia) adierazi behar da.

Aitortpenaren emaitza honakoa izango da: [545](#) - [531](#) - [541](#) + [542](#)

- Aurkeztutako aitortpena osagarria ez bada, aitortpenaren emaitza ([545](#) laukia) kuota diferentzialaren zenbatekoarekin ([531](#) laukia) bat etorriko da.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.alava.net</p>	<h2 style="margin: 0;">Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga</h2> <h3 style="margin: 0;">2013ko Autolikidazioa</h3> <p style="margin: 0;">Sarrera edo itzulketa agiria</p>	<div style="border: 1px solid black; padding: 5px; display: inline-block;">6. ORRIALDEA</div> <h1 style="margin: 0; font-size: 2em;">100</h1>
--	---	---

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

LEHENENGO AITORLEA	<p>ITSATSI HEMEN LEHENENGO AITORLEAREN ETIKETA</p>
--------------------	--

EZKONTIDEA EDO IZATEZKO BIKOTEKIDEA	<p>ITSATSI HEMEN EZKONTIDEAREN EDO IZATEZKO BIKOTEKIDEAREN ETIKETA, BATERAKO AITORPENA AURKEZTUZ GERO</p>
-------------------------------------	---

5. orrian ateratzen den "Aitorpenaren emaitza" negatiboa bada, bete ezazu dokumentu honetako 1. atala (itzulketa); emaitza positiboa bada, bete ezazu 2. atala, aitorpena arazuko epearen barruan aurkezten bada, edo 3. atala, epetik kanpo aurkeztuz gero.

<b>1</b>	<b>ITZULKETA</b>												
<p>[545] NEGATIBOA BADA (5. orrialdetik dator)</p> <p>ITZULTZEKO EMAITZA <input style="width: 100px;" type="text" value="551"/></p> <p>Helbideraketa kontua (bete itzazu lauki guztiak)</p>													
<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <th colspan="4">KONTU/BEZERO KODEA</th> </tr> <tr> <td style="width: 25%;">Entitatea</td> <td style="width: 25%;">Sukurtsala</td> <td style="width: 25%;">KD</td> <td style="width: 25%;">Kontuaren zenbakia</td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;">678</td> <td style="text-align: center;">679</td> <td style="text-align: center;">680</td> <td style="text-align: center;">681</td> </tr> </table>		KONTU/BEZERO KODEA				Entitatea	Sukurtsala	KD	Kontuaren zenbakia	678	679	680	681
KONTU/BEZERO KODEA													
Entitatea	Sukurtsala	KD	Kontuaren zenbakia										
678	679	680	681										

<b>2</b>	<b>SARRERA eta aitorpena arazuko epearen barruan</b>												
<b>OSORIK</b>	<p>[545] POSITIBOA BADA (5. orrialdetik dator)</p> <p>SARTZEKO EMAITZA <input style="width: 100px;" type="text" value="561"/></p>												
<b>ZATIKA</b>	<p>Kalkulatu eta adierazi hemen lehenengo epearen zenbatekoa ( <input style="width: 50px;" type="text" value="561"/> laukiaren % 60 ). Kopuru hori aitorpena aurkezteko garaian sartu beharko duzu.</p> <p>SARTZEKO KOPURUA GUZTIRA <input style="width: 100px;" type="text" value="561"/> x 0,60 = <input style="width: 100px;" type="text" value="562"/></p> <p>Bigarren epearen sarrera helbideratu nahi izanez gero (gainerako % 40), adierazi helbideraketa kontua (bete itzazu lauki guztiak)</p>												
<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <th colspan="4">KONTU/BEZERO KODEA</th> </tr> <tr> <td style="width: 25%;">Entitatea</td> <td style="width: 25%;">Sukurtsala</td> <td style="width: 25%;">KD</td> <td style="width: 25%;">Kontuaren zenbakia</td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;">678</td> <td style="text-align: center;">679</td> <td style="text-align: center;">680</td> <td style="text-align: center;">681</td> </tr> </table>		KONTU/BEZERO KODEA				Entitatea	Sukurtsala	KD	Kontuaren zenbakia	678	679	680	681
KONTU/BEZERO KODEA													
Entitatea	Sukurtsala	KD	Kontuaren zenbakia										
678	679	680	681										

<b>3</b>	<b>SARRERA eta aitorpena arazuko epetik kanpo edo aitorpen osagarria</b>								
<p>[545] POSITIBOA BADA (5. orrialdetik dator)</p>									
<table style="width: 100%;"> <tr> <td style="width: 50%;">Aitorpenaren emaitza</td> <td style="width: 50%;"><input style="width: 100px;" type="text" value="545"/></td> </tr> <tr> <td>Errekarguak</td> <td><input style="width: 100px;" type="text" value="565"/></td> </tr> <tr> <td>Berandutze korrituak</td> <td><input style="width: 100px;" type="text" value="566"/></td> </tr> <tr> <td>Sartzeko kopurua ( <input style="width: 50px;" type="text" value="545"/> + <input style="width: 50px;" type="text" value="565"/> + <input style="width: 50px;" type="text" value="566"/> )</td> <td><input style="width: 100px;" type="text" value="561"/></td> </tr> </table>		Aitorpenaren emaitza	<input style="width: 100px;" type="text" value="545"/>	Errekarguak	<input style="width: 100px;" type="text" value="565"/>	Berandutze korrituak	<input style="width: 100px;" type="text" value="566"/>	Sartzeko kopurua ( <input style="width: 50px;" type="text" value="545"/> + <input style="width: 50px;" type="text" value="565"/> + <input style="width: 50px;" type="text" value="566"/> )	<input style="width: 100px;" type="text" value="561"/>
Aitorpenaren emaitza	<input style="width: 100px;" type="text" value="545"/>								
Errekarguak	<input style="width: 100px;" type="text" value="565"/>								
Berandutze korrituak	<input style="width: 100px;" type="text" value="566"/>								
Sartzeko kopurua ( <input style="width: 50px;" type="text" value="545"/> + <input style="width: 50px;" type="text" value="565"/> + <input style="width: 50px;" type="text" value="566"/> )	<input style="width: 100px;" type="text" value="561"/>								

<p>Data eta aitortzailearen sinadura (aitorpena baterakoa izanez gero, bi ezkontideek edo izatezko bikoteekideek sinatu behar dute dokumentu hau)</p> <p>....., 2014ko ..... ren ..... a</p>
--

ZERGADUNAREN ZAKO ALEA

6. ORRIALDEA - PFEZ 2013

**ETIKETAK**

Zergaduna familia unitate batekoa ez bada eta, familia unitate batekoa izanik ere, zergak bakarka ordaintzen baditu, lehenengo aitortleari dagokion lekuan soilik jarri beharko du etiketa.

Ezkonduta dagoen edo Eusko Legebiltzarraren martxoaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izateko bikote bateko kidea den zergadunak, baterako zerga ordaintzaren modalitatea aukeratzeko badu, bere etiketa eta ezkontidearena edo izateko bikoteko kidearena ipini beharko ditu

**AITORPENAREN EMAITZA**

Aitorpenaren emaitza, 5. orrialdean lortutakoa, ZERO bada, ez da agiri hau bete beharko.

Emaita negatiboa bada, bete 1. atala (itzulketa), emaitza positiboa bada, bete 2. edo 3. atala, aitorpena legezko epean edo legezko epetik kanpo aurkezten den kontuan hartuta.

**1.- ITZULKETA**

Aitorpenaren emaitza NEGATIBOA bada, jarri dagokion zenbatekoa **551** laukian, eta horren azpian itzulketa helbideratu nahi den banketxeko kontua.

Jarri arreta berezia eta bete tarte guztiak (20 digitu), itzulketa egingo deneko banku zenbakia behar bezala jasotzeko asmoz.

Ahal dela, ez baliogabetu kontu hori harik eta itzulketa bideratu arte.

**2.- SARRERA ETA AITORPENA ARAUZKO EPEAREN BARRUAN**

Aitorpenaren emaitza POSITIBOA bada (**549** laukitik dator) eta hori arauzko epearen barruan aurkezten bada, bi aukera daude:

1.- Ez zatikatzea: horrelakoetan, guztizko zenbatekoa **561** laukian adierazi behar da.

2.- Bi epetan zatikatzea: horrelakoetan, **561** laukiko zenbatekoaren %60, **562** laukian adierazi behar da.

Zatitze horrek ez du berandutze interesik sortuko, ez eta errekargurik ere. Bigarren epe horren sarrera helbideratu nahi izanez gero, adierazi

helbideratze kontua. Ahal dela, kontu hori ez baliogabetu bigarren ordaintzeta data baino lehen.

Aurreko prozeduraren arabera, aitorpen osagarrien sarrera ezin izango da zatitu.

**3.- SARRERA ETA AITORPENA ARAUZKO EPETIK KANPO EDO AITORPEN OSAGARRIA**

Horrelakoetan, ezin da sarrera zatitu ez eta helbideratu ere.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 3/2007 Foru Arauaren 59.2.b) atalean araututako aitorpen osagarrietan izan ezik, arauzko epez kanpo aurkeztutako aitorpenei Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 26. eta 27. artikuluetan bildutako berandutze interesak edo errekarguak aplikatuko zaizkie.

**SINADURA**

Agiri hau aitorleak sinatu beharko du.

Senar-emazteek edo izateko bikoteak baterako aitorpena egingez gero, bi ezkontideek edo izateko bikoteko bi kideek izenpetu beharko dute.

**AURKEZTEKO LEKUA**

Aitorpenak, aitorlearen aukeran, ondoko lekuetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira:

a) Emaita negatiboa edo nulua (zero) duten aitorpenak:

– Arabako Foru Aldundiaren bulegoetan.

– Otsailaren 27ko 26/1996 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, entitate laguntzailatzat hartutako bankuetan edo aurrezki kutxetan.

– Posta arruntaren edo ziurtatuaren bidez.

b) Emaita positiboa duten aitorpenak:

– Entitate laguntzailatzat hartutako bankuetan edo aurrezki kutxetan.

– Posta arruntaren edo ziurtatuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren aldeko banku transferentziaren edo posta igorpenaren ordezkagiriaren fotokopia erantsita.

**AURKEZTEKO EPEA**

Orokorrean, 2013 ekitaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako aitorpena 2014ko apirilaren 29tik ekainaren 25era arteko epean aurkeztu beharko da, bi egun horiek barne.

IFZ	DEITURAK ETA IZENA	<b>IPFEZ 2013 A ERANSKINA</b>
-----	--------------------	-----------------------------------

**ATXIKIPENEN BIDEZKO ZERGA-AUKERA**

ERREGELA OROKORRA		
Zergaduna .....	571	
Lanaren etekin osoen BATURA: % 100eko integrazioa .....	572	
Lanaren etekin osoen BATURA: % 100etik beherako integrazioa .....	573	
<b>ETEKIN OSOAK GUZTIRA:</b> 572 + 573 .....	574	
Konpentsazio pentsioagatiko murrizketa .....	575	
<b>TAULARAKOA GUZTIRA</b> .....	576	
Ondorengo ahaideen kopurua ..... 577	dagokion %	578 %
Ezintasunagatiko murrizketa ..... 579	murrizketa %	580 %
<b>ATERATZEN DEN ATXIKIPENA</b> 576 x ( 578 - 580 ) % .....	581	

ERREGELA BEREZIAK		
Adm. kontseiluko kide izateagatiko ordainsaria .....	582	x 35% = 583
Lan harreman bereziengatiko ordainsaria .....	584	x 15% = 585

ZERGADUNAREN ZERGA ALEA

<b>Ateratzen den atxikipena guztira</b> 581 + 583 + 585 .....	586	
Egiaz sartutako atxikipena .....	587	
Atxikipenen zerga aukeraren araberako emaitza 586 - 587 .....	588	
3/2007 FAren araberako emaitza .....	589	
<b>Aitorpenean sartu beharreko laukia</b> 589 - 588 .....	590	

**ARGIBIDEAK**

Eranskin hau honako zergadunek bete beharko dute: aitopena aurkeztera beharturik egonda, atxikipenen zerga aukera hautatzen dutenek, nahiz eta 20.000,00 euro baino lan etekin gutxiago izan.

**ERREGELA OROKORRA**

**Zergadunaren gakoak**

571 gakoan, «A» jarri behar da etekina lortu duena aitorea bera denean, «E» ezkontidea edo izatezko bikoteko kidea denean eta «S1», «S2»... honelako etekinak dituen seme-alaba adingabe bakoitzeko.

**Lan etekinak: %100eko integrazioa**

Dirutan eta generotan kobratutakoa jar ezazu 572 gakoan, BGAEn bazkide babesleek, PPen sustatzaileek edo GAMeko eplegatuek ordaindutako zergak izan ezik.

**Lan etekinak: %100etik beherako integrazioa**

Adierazi %100 baino gutxiagoko integrazioa duten ordainketak, dirutan eta gauzatan egindakoak, jar itzazu 573 gakoan (3/2007 FAre 19. artikuluan aipatzen diren kasuak).

**ETEKIN OSOAK GUZTIRA**

Jarri 574 laukian honako hauek: %100eko integrazioa duten lan etekinak eta %100eko integrazioa baino gutxiagoko lan etekinak.

**Konpentsazio pentsioagatiko murrizketa**

Jarri 575 laukian zure ezkontideari ordaindu beharreko konpentsazio pentsioaren zenbatekoa, baina ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak mugarik gabeko kontratuarekin lan egiten duenean baino ez, eta pentsioa epaileak ezarri eta hurrengo urtetik aurrera ordaindutakoa bakarrik.

**TAULARA GUZTIRA**

Jarri 576 laukian zenbateko hau: 574 laukiari 575 laukia kendu ondoren lortutako emaitza. Guztizko horren gainean dagokion kuota kalkulatu da, orriaren oinean azaltzen den A taula orokorra aplikatuz.

**Ondorengo ahaideen kopurua**

Taula aplikatzeko ondorengo ahaideen kopurua kenkaria egiteko eskubidea ematen duten ondorengo ahaideen kopurua izango da. Ondorio horietarako, honako familia egoera hartuko da kontuan: urte naturaleko lehen egunean edo harremana hasten den egun berean (harremana egun hori baino beranduago hasten denean) dagoen familia. Atxikipena aplikatuko den zergaldian 30 urte betetzen dituzten ondorengo ahaideak ez dira kontuan hartuko, ondorengo horiek kenkaria egiteko eskubidea sortzen dutenean izan ezik. Jarri 577 laukian ondorengo ahaideen kopurua.

**Dagokion ehunekoa**

Jarri 578 laukian A taula aplikatzean lortzen den ehunekoa.

**Jarduneko langile ezindugatik murrizketa**

Taula orokorreko kopuruak aplikatzean lortzen den atxikipen ehunekoa orriaren beheko aldean agertzen den B eskalan adierazitako puntuetan gutxituko da, beti ere langile hauetako egoera batean badago:

a) %33ko edo hortik gorako eta %65etik beherako ezintasuna duen langile ezindu aktiboa bada.

